

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Aldundiak kultura eta kirol alorretan proiektuak partekatzea adostu dute

*Herrera kontseilariak eta Kulturako diputatu gipuzkoar Denis Itxasok lan-bilera bat izan dute ostiral honetan Iruñean*

Viernes, 08 de enero de 2016

Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrera eta Gipuzkoa Aldundiko Kultura diputatu Denis Itxaso Iruñean bildu dira gaur, eta bilera honetan bi aldeek legealdi berrian lankidetzan "estu eta emankorra" izateko asmoa erakutsi dute.

Bilkuran izan dira ere: Gipuzkoako Foru Aldundiko Proiektu Estrategikoen koordinatzaile Patxi Presa; Nafarroako Gobernuko Kulturako zuzendari nagusi Fernando Perez, eta Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaile Ruben Goñi.

Bi arduradunek lehen bilera honetan harremanetarako bideak nahiz elkar ulertze instituzionala ezartzea adostu dute kultur harreman biziak eta errazak eraikitze aldera.

Bi ordezkariak alor horietako politika propioak mahai gaineratu dituzte, eta bi lurraldeen esperientziak partekatu musikan, zineman, dantzan, gazteentzako ekintzetan eta beste kontu batzuetan.

Denin Itxasok Nafarroako arduradunei Donostiako kultur hiriburutzaren proiektua aurkeztu die, bai eta "bonokultura" ere, abendutik aurrera Gipuzkoak arrakasta handiarekin abiarazitako ekimena, eta ekimen horren gainean Herrera kontseilariak interesa agertu du.

Herrera kontseilariak ERESBIL Musikaren Euskal Artxiboari buruzko interesa agertu du ere. Bertan euskal musika-ondarea biltzen, kontserbatzen, babesten eta hedatzen da eta, bereziki, euskal konpositoreen ekoizpena.

Bi ordezkariak, halaber, sortzaile eta artista nafar nahiz gipuzkoarren artean esperientziak gehiago trukatzeko formulatan lan egitea adostu dute.

Kirolean (alor horretan bi ordezkariak ere eskumendunak dira)



Bi lurraldeetako kultura eta kiroletako arduradunek gaur goizean izandako bileraren irudi bat.

federazioen nahiz klubien funtzionamendua eta diru-laguntzen politikak aztertu dira, eliteko kirola optimizatzeko eta bi lurraldeetako biztanle guztien kirol-jarduera erraztu eta suspertzeko.